



## Euskadiko Turismoko Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena

### Aurkibidea:

I. Lehiaren Euskal Agintaritzaren eskumena eta aurrekariak.....	2
II. Zerbitzuak emateko lehiaren murrizketen justifikazioa eta legezko mugak .....	4
III. Proposatutako araudiaren analisia lehiaren ikuspuntutik.....	6
1. Turismo-jarduera egin eta kokatzeko askatasuna.....	10
A. Turismo-jarduera hastea: erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa.....	10
B. Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa.....	13
2. Elkarlaneko ekonomia.....	14
A. Erabilera turistikoko etxebizitzak.....	14
B. Ostaturako turismo-erabilerako etxebizitza partikularretako geletan.....	16
C. Ustiapen-unitatearen printzipio eztabaidagarria.....	17
D. Ustiapen bateratuaren bateragarritasuna .....	18
3. Arau-hausteen ondorioak eta zehapenak .....	18
4. Merkatuan lehian eragina izan dezaketen beste kontu batzuk.....	19
A. "Lehia desleialari, legez kanpoko eskaintzari edo klandestinoari eta intrusismo profesionalari" buruzko arauketa.....	19
a. Lehia desleiala.....	20
b. Intrusismo profesionala.....	21
c. Legez kanpoko eskaintza edo klandestinoa.....	22
B. Lanbide turistikoa.....	22
a. Turismo-gidak .....	23
b. Prestakuntza .....	23
C. Izendapenen erreserba.....	24
D. Salmenta ibiltariari buruzko aipamena .....	25
E. Bitartekaritza-lana egiten duten turismo-enpresei jarduera erreserbatzea eta mugatzea.....	25
F. Lurralde Plan Sektorialak eta Gidariak.....	27
G. Erantzukizun zibileko aseguruak .....	27
H. Ekimen pribatua bultzatzea.....	28
I. Ostaturako turismo-enpresen sailkapenaren sinbolo egiaztatzaileak.....	29
J. Turismo-zerbitzuen sinboloak, bereizgarriak eta publizitatea .....	30
K. Publizitatea .....	30
L. Prezioak .....	31
IV. Ondorioak.....	32



## Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, batzordeburua

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernandez jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluak, aipatutako kideek osatutakoak, 2015eko abuztuaren 6an egindako osoko bilkuran, Euskadiko Turismoko Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena ematea erabaki du.

## I. Lehiaren Euskal Agintaritzaren eskumena eta aurrekariak

1. 2015 ekainaren 23an, Euskadiko Turismoko Legearen Aurreproiektua (aurrerantzean, aurreproiektua) bidali zen Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA) honetara, egokitzat jotzen diren alegazioak eta iradokizunak egiteko. Geroago, bi zirriborro jaso ziren LEAn, aurrekoak aldatzen zituztenak; bi horietatik azkena 2015eko uztailaren 21ean jaso zen.

Aurreproiektuari dagokionez, xedapen orokorrak izapidetzeko aplikazio informatikoan jaso den bezalaxe, 2015eko otsailetik gaur egun arte mota desberdinetako alegazioak egin zaizkio. Txostenak bidali dituzten erakundeen artean honako hauek daude: hainbat esparrutan jarduten duten enpresen edo profesionalen elkarteak (autokarabanak, kanpinak, ostatuak, aterpetxeak, landetxeak, turismo aktiboko elkarteak edo turismo-gidak), administrazioak (Eudel eta Bizkaiko Foru Aldundia), sindikatuak (UGT), erabiltzaileen elkarteak (EKA-OCUV) eta eskaintza-eredu berrien ordezkariak (Air BnB, Anfitriones de Euskadi Hosts, Apartamentu Turistikoen Euskadiko Elkarte eta turismo digitaleko Espainiako elkarte). Era horretako proiektuetan ohikoa den bezala, txosten gehiago jasotzen dira betiko eskaintza-ereduetatik (lehiari buruzko Zuzenbidean *operadore titularrak* izenekoak), operadore horiek merkatuan duten tokia ziurtatzeko; bestalde, operadore berriek ere euren txostenak bidaltzen dituzte, merkatuan sartzea oztopatu edo zailtzen ez dien araudi malguagoa lortzeko.

2. Legeak lehiaren sustapen arloan erakunde honi ezartzen dion eginkizuna dela-eta ematen da txosten hau<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.3, 3.5 eta 10.n artikulua (EHAA, 29. zk., 2012ko otsailaren 9koa).



Eginkizun horren bidez, euskal merkatuen lehia eraginkorra sustatu nahi da zehapenik eragiten ez duten ekintzen bitartez; ekintza horien artean administrazio publikoarekiko harremana nabarmentzen da, botere legegileari arau-testuak proposatzeko ardura daukan erakunde gisa.

Legeak LEAri ematen dizkion zereginak gomendatzen dute, xedapen orokorrak izapidetzean (kasu honetan bezalaxe), bere txostena Lege Batzorde Aholkulariaren irizpena eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenaren aurretik ematea; izan ere, horrela eskuratu ahal izango da proiektua izapidetzeko memoria eta kontuan hartu ahal izango dira entzunaldirako eta jendaurreko izapideetan emandako erantzunak<sup>2</sup>.

**3.** Aurreproiektuak ukitutako arau-esparrua Turismoaren antolamenduari buruzko 6/1994 Legeak ezarritakoa da. Geroago lege hori 16/2008 Legeak aldatu du, eta duela gutxi 7/2012 Legeak ere bai, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Zuzentaraura egokitzeko zenbait lege aldatzekoak, hain zuzen.<sup>3</sup>

Aipatutako legearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-sektorea arautzea, eta turismo-jardueraren plangintzari eta sustapenari dagokionez, administrazioaren jarduerak bete beharko dituen printzipioak eta irizpideak ezartzea<sup>4</sup>.

Era berean, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babestu eta defendatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan; lege horren xedapenek turismo-sektorea ere arautzen dute<sup>5</sup>.

---

<sup>2</sup> Ikus, adibide gisa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legea (EHAA, 101 zk., 2013ko maiatzaren 12koa), 2297 zenbakiko xedapena, 1-11 orrialdeak; eta Xedapen Erkideak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea (EHAA, 254 zk., 2003ko abenduaren 30ekoa).

<sup>3</sup> 6/1994 Legea, martxoaren 16koa, Turismoaren antolamenduari buruzkoa. EHAA, 70 zk., 1994ko apirilaren 14koa. 16/2008 Legea, abenduaren 23koa, Turismoa antolatzeko Legea aldatzekoa. EHAA, 250 zk., 2008ko abenduaren 31koa; 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko. EHAA, 84 zk., 2012ko apirilaren 30ekoa.

<sup>4</sup> Aurreproiektuaren azken xedapenetatik lehenengoak arau hori indargabetzen du, bai eta aurreproiektuaren aurka dauden arauetako xedapen guztiak ere.

<sup>5</sup> 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena. EHAA, 254. zk., 2003ko abenduaren 30ekoa.



## II. Zerbitzuak emateko lehiaren murrizketen justifikazioa eta legeko mugak

4. Administrazio publikoek ekonomian esku hartzen dute eragile ekonomiko gisa jarduten dutenean (ondasunen edo zerbitzuen hornitzaile edo eskatzaile gisa) eta, beren ahalmen arau-emailea erabiliz, ekonomia-jarduera arautzeko xedapenak ematen dituztenean.

Administrazio publikoek lehiari eragiten dioten arauak emanez merkatuan esku hartzeko arrazoia da, batetik, merkatuan akatsak daudela, eta bestetik, ondasun juridiko jakin batzuk babestu behar direla. Hala ere, batzuetan esku-hartze horrek oztopatzen du arautu behar diren jardueren garapena<sup>6</sup>.

Horregatik, kalitateagatik, prezioagatik eta gainerako ezaugarriengatik bereizten diren eskaintzak egotea baimendu ez ezik, bermatu ere egin behar du administrazioak. Dena dela, salbuespen bat dago horretarako, hain zuzen ere, jarduera-arlo jakin batean enpresaren askatasuna mugatzeko esku-hartzeko beharrezana egiaztatzea.

Horrela, erabiltzaileak bere askatasunez jardun dezake, eskaintza berritzaileak eta irudimentsuak lor daitezke, kalitatea hobetu daiteke eta azkenik, prezioak merkatu daitezke.

5. Europar Batasunean, araudiak EAEn bizi diren edo zerbitzuak EAEn nagusiki ematen dituzten pertsoneri (EBko estatu kideetako herritarrak barne) eragiten dien neurrian, zerbitzuak libre emateko araudiak barne-araudiaren garapena baldintzatu du<sup>7</sup>.

Operadoreek merkatuan jarduteko askatasuna mugatzen duten esku-hartzeak hiru irizpide hauetan oinarrituta aztertu behar dira<sup>8</sup>:

- **beharrezana:** justifikatzeko arrazoiak dira ordena publikoa, segurtasun publikoa, osasun publikoa, ingurumen-babesa, edo natur baliabide gutxi edo oztopo teknikoak egoteak merkatuko operadore ekonomikoen kopurua murrizten dutenean.
- **proporzionaltasuna:** mugak ipintzea tresnarik egokiena da nahi den helburua lortzeko, emaitza berdina eskuratzeko dauden gainerako neurriak murriztaileak direlako.

<sup>6</sup> Horri buruz, LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Administrazio publikoentzako gomendioak, merkatuak era eraginkorragoan arautzeko eta araudiak lehia errazteko*, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren web orrian dago [http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias\\_y\\_recomendaciones/recomendaciones.pdf](http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias_y_recomendaciones/recomendaciones.pdf) (txosten honetan aipatzen diren web orri guztiak 2015eko abuztuaren 6an kontsultatu dira azken aldiz).

<sup>7</sup> Ikus Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 26. artikulua (barne-merkatua), 49-55 artikulua (ezarpena) eta 56-62 artikulua (zerbitzuak), eta barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura (Europako Batasuneko Aldizkari Ofiziala, L 376, 2006/12/27koa, 36/68 orrialdeak).

<sup>8</sup> Zerbitzu-jarduerari sarbide libreari eta haien erabilerari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikulua. BOE, 283 zk., 2009ko azaroaren 24koa. Merkatuaren batasuna bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak emandako idazketa. BOE, 295 zk., 2013ko abenduaren 10ekoa.



- **bereizkeriarik eza**: herritartasunaren arabera edo establezimenduaren kokapenaren nahiz sozietatearen egoitzaren arabera.

Beraz, lege batek merkatuan sartzeko neurri murriztaile bat ezartzen badu, beharizanaren, proportzionaltasunaren eta bereizkeria ezaren baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du, arrazoiak emanda.

Ildo horretatik, Omnibus Legea izenekoak zenbait aldaketa sartu zituen araudian zerbitzuan liberalizatzeko<sup>9</sup>. Aldaketa horietako bat da 30/1992 Legearen 39 bis artikulua jasotzen duen eskakizuna, hain zuzen ere, administrazio publikoek lehia mugatu edo zerbitzuak ematea oztopatzen duen neurriren bat hartzen dutenean, honela jokatu behar dutela<sup>10</sup>:

- gutxien murrizten duen neurria aukeratu behar dute.
- neurriaren beharra arrazoitu behar dute, interes publikoa babesteko.
- lortu nahi diren helburuetarako egokia dela egiaztatu behar dute, bereizkeriarik ez egoteko.

Bestalde, Ekonomia iraunkorrari buruzko Legearen arabera, administrazio publikoek enpresen lehiakortasuna sustatu beharra daukate, ondasun eta zerbitzuen merkatuan lehia eta eraginkortasuna erraztu, ekoizpen baliabideen erabilera bideratu eta produktibitatea hobetzen duten arau-esparruen bidez<sup>11</sup>. Horrek esan nahi du administrazio publikoek beren ekimen arau-emaileak printzipio hauetara egokitu behar dituztela: beharrezakoa, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, irisgarritasuna, sinpletasuna eta eraginkortasuna.

Azkenik, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko Legeak oinarri hauek ditu: operadore ekonomikoen joan-etorri askea eta haiek kokatzeko askatasuna; ondasun eta zerbitzuen joan-etorri askea, eta agintariak ezin dute hori oztopatu, ez zuzenean, ez zeharka; jarduera ekonomikoa egiteko oinarrizko baldintzen berdintasuna<sup>12</sup>.

Lege hori legez ezarritako merkatu-baldintzetan jarduera ekonomikoetarako sarbideari aplikatzen zaio, eta legearen artikuluen arabera, operadore ekonomiko guztiek eduki behar dituzte eskubide berdinak, egoitzaren edo establezimenduaren tokia dela-eta bereizkeriak egin gabe.

Hori dela bide, jarduera ekonomikoak egin edo haietan sartzeari buruzko xedapen orokorrek, administrazio jarduerak edo kalitateko arauak ezin dezakete baldintza edo

---

<sup>9</sup> 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, Zerbitzu-jardueren sarbide libreari eta haien erabilerari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena. BOE, 308 zk., 2009ko abenduaren 23koa.

<sup>10</sup> 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena. BOE, 285 zk., 1992ko azaroaren 27koa

<sup>11</sup> 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa. BOE, 55 zk., 2011ko martxoaren 5koa.

<sup>12</sup> 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzkoa. BOE, 296 zk., 2013ko abenduaren 10koa.



betekizunik jaso, egoitza- edo ezarpen-tokia dela-eta zuzenean edo zeharka operadore ekonomikoari bazterkeria eragiten badiote.

### III. Proposatutako araudiaren analisia lehiaren ikuspuntutik

6. Azken urteotan, kontsumo-ereduak eta -ohiturak aldatuz joan dira, besteak beste, informazio- eta komunikazio-teknologiak izugarri garatu direlako. Teknologia horiek eskaintzen dituzten plataformei esker, errazagoa eta azkarragoa da operadoreen arteko elkarreragina<sup>13</sup>.

“Elkarlaneko Ekonomia” izenekoaren barruko harreman-modu berrietan kontsumo-era jakin batzuk sartzen dira, kontraprestazio baten truke partikularren ondasun eta zerbitzuen trukaketan oinarritutakoak<sup>14</sup>.

Eredu berri horren bidez, transakzioan zerbitzu asko eta asko ematen dira, hala nola, garraioa, garaje-plazak, ezagutzak, jantziak... Eta turismoa ere joera berri horretan sartzen da<sup>15</sup>.

Gaur egun igoera handia izan dute kontsumo-eredu berri horren bidez egindako eskaintza berritzaileek. Igoera horrek etekin asko sortzen ditu, eskaintzaren nahiz eskariaren ikuspuntutik.

Alde batetik, baliabide bat dutenek, esaterako, etxebizitza bat edo etxebizitzaren zati bat, etekin ekonomikoa eskuratzen dute. Bestetik, eskariaren ikuspuntutik, hautatzeko aukera gehiago daude, eta prezio gehiago ere bai; horrela, zerbitzuak merkeago jasotzeko aukera dago. Aukera horrek turismorako sarbide sozialagoa ahalbidetzen du, betidanik ohiko turismotik kanpo egon diren gizarte-sektoreek eskuratzeko aukera gehiago baitute.

Araudi malguak aukerak sortarazten ditu, herritarrek beren eskubideak heldutasunez balia ditzaten. Alderantziz, eskaintza-eredu berrietan sistema ohikoenen berezko parametroak aplikatu nahi dituen araudiak hau lortzen du: merkatuan dagoeneko ezarrita dauden

---

<sup>13</sup> Ikus KATALUNIAKO LEHIAREN AGINTARITZAren txostena, *Berdinkideen arteko transakzioak (P2P) eta Lehia*, 2014ko uztaila. [http://acco.gencat.cat/web/.content/80\\_acco/documents/arxiu/actuacions/ES\\_7\\_2014\\_TRANSACCIONES\\_ENTRE\\_IGUALES\\_Y\\_COMPETENCIA\\_CAST.pdf](http://acco.gencat.cat/web/.content/80_acco/documents/arxiu/actuacions/ES_7_2014_TRANSACCIONES_ENTRE_IGUALES_Y_COMPETENCIA_CAST.pdf)

<sup>14</sup> Eredu berrien gorakada geldiezinak bultzatuta, MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALAK kontsulta publikoa egin du (*zerbitzu publikoak emateko eredu berriei eta elkarlaneko ekonomiari buruzko kontsulta publikoa*), garatzen ari diren eta elkarlaneko ekonomiaren definizioan sar litezkeen jarduerak aztertzeke parametro gisa erabiltzeko Egindako jarduerak eta emaitzak web orrian daude (<http://www.cnmec.es/es-es/promoci%C3%B3n/informesyestudiossectoriales/estudiodeeconom%C3%ADacolaborativa.aspx>).

<sup>15</sup> 2015eko uztailan, Bartzelonan, gai horri buruz egin ziren lehiari buruzko jardunaldietan azaldutako aurkezpenak kontsulta daitezke. <http://acco.gencat.cat/ca/detall/article/VIII-Jornadas-Defensa-de-la-Competencia-esp>



enpresa jakin batzuen interesak babestea, operadore berriak sartzea mugatzea eta, beraz, erabiltzaileen onurak mugatzea.

Araudi berriaren helburua legezko eskakizunak eskari berrietara egokitzea izan beharko litzateke. Gainera, errealitate berria antzinatek datorren araudiari egokitu beharrean, gaur egungo araudiak ezarritako betekizunak beharrezkoak diren ala ez berraztertu beharko litzateke; eta, jakina, edozein ekonomia-jardueratik eratorzen diren zerga- betebeharrak ordaintzea kontrolatzeko aukera ukitu gabe utzi beharko da.

Horren adibidea da Erresuma Batuak duela gutxi onartu duen Desarauketa Araua izenekoa<sup>16</sup>. Arau horretan araudi-aldaketa garrantzitsu bati heltzen zaio, eta aldaketaren idazketak dioenez, helburua da legeriak beste enpresa edo erakunde batzuetan eta pertsonengan sorrarazten dituen mugak gutxitzea eta praktikan zentzurik ez duten xedapenak indargabetzea. Arau hori mundu mailako erreferentea da sektore batzuetan (besteak beste, garraiobideak, ostatua eta aisialdia, oro har) eskaintza-errealitate berrietara egokitzean, iraupen laburreko ostatu-hartzea desarautzen du eta derrigorrezko erregistroak ezartzen ditu bakarrik 90 egun baino gehiagoko egonaldietarako<sup>17</sup>.

## 7. Testuinguru honetan, Legearen Aurreproiektuaren Zioen Azalpenak arauaren helburuak jasotzen ditu

Araudi eraginkorraren beharrak administrazioaren jardun murriztailea (beharrezkoa, proportzionala eta ez diskriminatzailea dela arrazoituta) justifikatzeko balio dezaketen **egungo merkatuko akatsen** analisia dakar. Analisi hori zioen azalpenaren barruan egon beharko litzateke, eta horrela, beren eskubideak murriztuta ikusten dituzten operadoreek ulertu eta baloratu ahal dute proposatutako helburuen inguruko muga beharra eta proportzionaltasuna.

Arau-proiektu bati buruzko edozein ebaluazio egiterakoan, ezinbestekoa da ondo ezagutzea hura sustatu eta zentzua ematen dion “*ratio legis*”; izan ere, kontuan hartuta norbanakoaren askatasuna ordenamendu juridikoaren «gorengo balioa» (Espainiako Konstituzioaren 1.1 art.) dela, pertsonen askatasun subjektiboaren eremua era batera edo bestera, modu formalean nahiz materialean, mugatzen duen araudiak berariaz adierazi beharko du modu legitimoan sartzea nahikoa justifikatzen duen arrazoi publikoa. Legegileak berariazko adierazpen hori egiteko modu egokienak lege-proiektuen zioen azalpena edo atariko dira.

<sup>16</sup> Bill of the Parliament, *Deregulation bill*, HL Bill 33/2015, hemen eskuragarri: <http://www.publications.parliament.uk/pa/bills/lbill/2014-2015/0033/15033.pdf>. Aipatutako arauak oztopoak kentzea jasotzen du oso arlo desberdinetan, hala nola, garraioa, hirigintza, komunikazioak, ingurumena, hezkuntza edo kaudimengabeziak. Hain zuzen ere, turismo-ostatuei buruzko gai batzuei heltzen die.

<sup>17</sup> Gure inguruko beste herrialdeetako arauak, Frantziakoak, esaterako, 120 egun baino gehiago egonaldiak ezartzen ditu. Ikus Décret n° 2010-759 du 6 juillet 2010 portant diverses dispositions relatives au tourisme, bertsiotzen finkatua eta aldaketa guztiekin. <http://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT000022447296&dateTexte=20150806>



Kasu honetan, zehaztu gabeko eta interpretazio zaileko helburuak ezartzen ditu zioen azalpenak. Zioen azalpenetik ezin da informazio nahikorik atera arau-proiektuaren asmoei buruz.

Aurkeztutako Turismoko Legearen Aurreproiektuaren inguruko araudia arrazoitzen duten helburuen deklarazio hutsari lotuz gero, zioen azalpenetik helburuak hauek direla ondorioztatu ahal dugu:

Lehenengo eta behin, azaletik aipatu arren, turismo-sektorearen arloko EAEko araudia zerbitzuen zuzentara egokitu beharko litzateke. Horrela, bada, zuzentarau horrekin bat, interpretatu ahal da legegileak zerbitzu-jarduera bat (kasu honetan, turismo-jarduera) ezartzeko askatasuna jarri nahi duela arauaren artikuluen garapenaren gidari eta bide-erakusle gisa.

Bigarrenik, araudia egokitu nahi da, «beharrezko»tzat jotzen baita enpresa-sektore batean izandako aldaketa sozial eta ekonomikoei estaldura juridikoa emateko; enpresa-sektore hori garrantzitsua da etekin ekonomikoen sortzaile gisa, eta sektorea bere etengabeko dinamismoagatik nabarmentzen da. Bigarren helburu hori, ez oso eztabaidagarria, azaletik deskribatu da; izan ere, legegileak egokitu edo berritzeko asmoa daukela esaten da, baina ez da zehazten «beharrezko»tzat jotzen diren aldaketa horien noranzkoa.

Hirugarrenik, Hiri Errentamenduen Legearen aldaketa daukagu: turismo-erabilerarako etxebizitzak bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu, eta haien araudia autonomia-erkidegoaren araudiaren barruan sartzea derrigortzen du, arlo horretako eskumenen titulartasunagatik. Izan ere, Autonomia Estatutuaren 10.36 artikuluan ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoak turismo-arloan eskumen eskusiboa izango duela, eta, beraz, autonomia-erkidegoko legegileari dagokio eginkizun hori; hala ere, adierazpen horrek oraingoan ere ez du inolako informaziorik ematen lortu nahi diren helburuei buruz.

Zioen azalpenaren beste paragrafo batean berriaz baieztatzen da arauak helburu hau edukiko duela: “azaltzea eta eguneratzea errealitate turistikoaren alderdi batzuk, berriazko araudia zehaztu beharra dakartenak, garapeneko araugintza oso bat sortzeko eta zuzenbide-esparru orokorra eta homogeneoa eratzeko”. Paragrafo hori zehaztugabea eta interpretagaitza da. Desiragarria da arau batek ukitu nahi dituen errealitatearen alderdiak islatzea, eta esparru juridiko aplikagarria sortzea ere bai. Ez dago ezer legegilearen baieztapen horren aurka, baina baieztapen horretatik ezin da informazio nahikorik atera “turismo-errealitatearen alderdi” horietan gauzatu nahi diren “strictu sensu” helburuei buruz. Eta ez doa baieztapen hutsetik haratago, ez du arrazoitzen berritasunak “dauden turismo mota berrietara egokitu beharra”, ostatu eta bitartekaritza figurei dagokienez. Informazio-teknologiaren garapenak eta turismo-jardueran sartzen diren gizarte-erabilera berriek ez dute egokitu beharrik, zentzu zabalean esanda, aitzitik, beraiek dira «egun dauden turismo mota berriak».

Gaineratzen da legeak sistematizatu eta zehaztu nahi duela «turismo-arloan esku hartzen duten subjektu eta agenteen jarduerak, azken berriak sartuz, bai alojamendu- eta





bitartekaritza-figurenak, bai haien espezialitateenak. Izan ere, egokitu egin behar dira lehendik ere existitzen diren turismo mota berrietara». Dena dela, zalantzaren bat geratzen da asmo horren esanahi semantikoari buruz, hau da, «sistematizatu eta zehazten du turismo-arloan esku hartzen duten subjektu eta agenteen jarduera» dioenean. Hala eta guztiz ere, bat etorriko gara esatean zehaztapen hori ez litzatekeela erabili behar turismo-arloan eskema berri bat sartzeko (hitzez hitz, «kokatzeko askatasunari buruzko eskema berri bat sartu zuen zerbitzu-jarduera batean aritzeko»), benetan askatasun hori murrizten badu.

Halaber, «natura- eta ingurumen-baliabideak bermatzeko manuak» sartzeko asmoa adierazten da, helburu akasgabea, berori islatu behar duten arau-zehaztapenek eta -ekintzek bat egiten badute legea sartu behar den ordenamendu juridikoaren gainerako printzipio eta helburuekin.

Beste helburu orokor bat gaineratu behar da, alegia, bere eremu subjektiboan kokatu behar direla turismo-jarduerarekin lotutako zerbitzuak edo zerbitzu osagarriak ematen dituzten operadore ekonomikoak; azkenik, «turismo-erabiltzaileak» babesteko eta zerbitzuaren kaliterako helburuak agertzen dira behin eta berriz legean.

Benetan, turismo-zerbitzuen erabiltzailea babesteko printzipioak norbanakoaren askatasunak justifikatzeko balio dezake, mota guztietako turismo-zerbitzuak ematen dituenaren nahiz bezeroaren askatasunak. Turista, hitzaren zentzurik zabalenean hartuta, zerbitzu bat kontratatzen duenean informazio-egoera desorekatuan dago, solaskidearen aldean, eta berdin da solaskidea zerbitzuaren amaierako eskaintza-egilea edo edozein motatako bitartekaria bada. Egoera desorekatu hori dela eta, turistaren kontraturako gaitasuna ahultzen da eta horrek botere publikoen botere-ekintza bat justifikatu ahal izango luke, abusurik ez egoteko. Gaur egun, informazio-desoreka hori izugarri aldatu da, aldaketa teknologikoei zerbitzuak kontratatzeke ohiko bideak aldarazi dituztelako; izan ere, aldaketa teknologikoei esker, erabiltzaileek urrunetik eta zehatz-mehatz ezagutu ahal dituzte aldez aurretik eskaintzen ezaugarriak. Paradigma-aldaketa hori ez da arauaren justifikazioan jasotzen (ezta edukian ere, azalduko dugun moduan).

Bestalde, turismo-zerbitzua gauzatzen denean, berriz ere erabiltzailearen edo bezeroaren kontratu-posizioa nahiko ahula da, zerbitzua premiaz ematen baita. Lantzen ari garen zerbitzuaren berezko izaera kontuan hartuta, erabiltzailea bere ingurune fisiko eta emozionalek kanpo egoten da, eta bitartean zerbitzua jasotzen du, ezinbestean, denboratarte jakin batean (orain), eta ziur aski, toki (hemen) eta modu (honela) jakin batean ere bai. Zerbitzuaren berezko izaerari dagokion gorabehera horrek botere publikoen babes berezia justifikatuko luke. Baina behar-beharrezkoa da agintaritza eskudunek esku-hartzea kontu handiz aztertzea, horrela bakarrik lor daitekeelako babestea norbanakoaren askatasunei kalte egin gabe (esku-hartzean gehiegizko eta ez beharrezko arauketa eta jardun burokratikoak saihestuz), administrazio-jarduerarik gabe erabiltzaileak izango lituzkeen kalteekin alderatuta.



Lehiaren Euskal Kontseiluaren iritziz, proposatutako araudian beharizanaren, proportzionaltasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak, sektorean administrazioaren esku-hartzea gidatzen duten irizpide gisa, nahikoa justifikatuta daudela epaitzea Zioen Azalpenaren arrazoi gabeziak mugatzen du.

Beste alde batetik, arauaren baieztapen batzuk ez dira oso koherenteak gainerako helburuekin eta beharrezkotzat jo izan den malgutasun eta egokitzapenarekin. Horren adibide dira arauaren lehenengo artikulua eta baieztapena, «sektorearen antolamendua eta diziplina» helburu hartzen dituen (testu osoan jasotzen da), edo 4.2 artikuluan esaten dena, turismo-administrazioak turistentzako «arreta homogeneoa» bilatzen duela.

8. Deigarriak iruditu zaizkigun alderdi batzuk aztertuko ditugu.

### 1. Turismo-jarduera egin eta kokatzeko askatasuna.

9. Zerbitzua EB barruan ematen da, arau orokor gisa zerbitzuen zuzentaraua gure arauetara ekarri ondoren, eta askatasun osoz egiten da.

Arauk salbuespen gisa bakarrik ezar dezake alde aurreko baimen-araubidea. Eta, horretarako, beharizanaren, proportzionaltasunaren eta bereizkeriarik ezaren baldintzak betetzen direla egiaztatu behar da, eta nahikoa arrazoituta egon behar dute. Arrazoi hauengatik ez litzateke gaikuntzarik eskatu behar zerbitzua emateko: osasun publikoa, ingurumenaren babesa, ordena edo segurtasun publikoa, natur baliabideen eskasia eta eragozpen teknikoak<sup>18</sup>.

Murritztea beharrezkoa dela egiaztatzen bada, gutxien murritzten duen bidea erabiliko da, alegia, gaikuntzarik gabeko erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, aukera horrek helburua lortzeko balio ez duela egiaztatzen ez bada.

### A. Turismo-jarduera hastera: erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa

10. Arauan ezarritako agindu hori gorabehera, aurreproiektuaren 18. artikulua ezartzen du Euskadin zerbitzuak emateko beharrezkoa dela erantzukizunpeko adierazpena edo komunikazioa aurkeztea eta gaikuntza lortzea, arauz ezarriko den moduan. Aurreproiektuaren 2. artikuluan zerbitzu turistikoak definitzen dira: alojamendua, mantenuaz edo mantenu gabe, bitartekaritza eta informazio turistikoa, turismo-arloko lanbide batean aritzean ematen direnak.

11. Badirudi aurreproiektuak erantzukizunpeko adierazpenaren bidea aukeratzen duela. Hala ere, manu beraren esaldian esaten da «jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu, eta, hala badagokio, **dagokion gaikuntza lortzen badu**

<sup>18</sup> Zerbitzu-jardueren sarbide libreari eta haien erabilerrari buruzko 17/2009 Legearen 5. artikulua.



erregelamenduzearritako baldintzetan». Beraz, testuan gaizki-ulertu bat dago: hasieran esaten du turismo-jarduera askea dela, baina erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu edo gaikuntza lortzeko baldintzak bete behar direla aldez aurretik.

Horri dagokionez, esan behar da aurreproiektuan ez dela egiaztatu erregistro-sistema erabiltzeko aukera justifikatzen duen merkatu-akats bat. Hori dela eta, ezin da esan hori beharrezkoa denik Aurreproiektuaren Zioen Azalpenean ezarritako helburuak lortzeko.

**12.** Eta ezartzen den deslegalizazioa ere zalantzan jartzeko modukoa da. Aurreikuspen horren bidez, etorkizunean egingo den araudiari gaitasun mugagabea ematen zaio, zerbitzuak ematen hasteko muga eta eskakizun berri eta handiagoak ezartzeko. Ekonomia-jarduera bat garatzeko betekizunen zehaztapena geroagoko araudi baterako uzten duten aurreikuspenak arau-garapen hutsa baino gehiago dira, hau da, aurreikuspen horiek ahalmena ematen diote gobernuari mugak ipintzeko, parlamentuari bakarrik dagozkion mugak.

Dena den, gogoan hartu behar da lehiari arauzko murrizketak ezartzen dizkion gaikuntzak zenbait baldintza bete behar dituela. Alderantziz, lehiari ezarritako murrizketak, egilea edozein dela ere, lege hauetan eskatzen dena egiaztatu beharko du: 30/1992 Legearen 39 bis artikulua, Ekonomia Iraunkorrari buruzko Legearen 4.1 artikulua, eta Merkatuaren Batasuna Bermatzeko Legea, beharizanaren, proportzionaltasunaren eta bereizkeriak ezaren printzipioekin lotuta<sup>19</sup>.

Nabarmendu beharrezkoa da gaikuntza edo baimena lortzeko izapideak eta prozedurak arauzkoak, beharrezkoak, proportzionalak, ez baztertzailak, argiak, zalantzarik gabeak, objektiboak, inpartzialak eta gardenak izan behar direla.

**13.** Gainera, aurreproiektua ez da batere argia aurreikuspenek behartutako enpresak zehazteko orduan. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da egiten duen turismo-enpresen sailkapena 29. artikuluko sailkapen berdina izan arren (ostatu- eta bitartekaritza-enpresak), gero **interes turistikoko jarduerak** egiten dituzten enpresen edo establezimenduen beste sailkapen bat egiten duela (72. artikulua). 73. artikulua arabera, jarduera eta establezimendu horiek eta «lege honen arabera ezar daitezkeenek» parte har dezakete beren produktu turistikokoak baloratzeko eta bereizteko prozesuetan, erregelamenduz

---

<sup>19</sup> MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALAREN txostena, IPN/CNMC/0012/15, Lurreko Garraioak Antolatzeko Legeko araudia gidaridun ibilgailuen alokairuen arloan aldatzen duen Errege Dekretuaren proiektuari buruzko txostena, 2015eko uztailaren 25ekoa, 8. or. Testu osoa txostena egin duen erakundearen web orrian kontsulta daiteke, [http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/notasdeprensa/2015/PROMOCION/150626%20IPN\\_CNMC\\_0012\\_15%20PRD%20ROTT%20Arrend%20veh%C3%ADc%20conduc\\_docx.pdf](http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/notasdeprensa/2015/PROMOCION/150626%20IPN_CNMC_0012_15%20PRD%20ROTT%20Arrend%20veh%C3%ADc%20conduc_docx.pdf)



ezarriko den moduan. Kategoria hori ez dago 2. artikuluan, legean erabiltzen diren kontzeptuen definizioak jasotzen dituenean<sup>20</sup>.

Beraz, kategoria berri horren inguruan erabateko zehaztasun eza dago, nahiz eta onura batzuk dauzkan gainerako kategorien aldean.

**14.** Turismo-enpresa baten titularrak (pertsona fisiko edo juridikoa), jarduera hasi baino lehen, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio «Euskadiko Turismo Administrazioari, garatu nahi duen jarduera horretan aritzeko bete behar diren betekizunak betetzen dituela adierazten duena» (20. artikulua). Erantzukizuneko adierazpena aurkeztu eta berehala inskribatuta geratuko da jardueren erregistroan; administrazioak gero ikuskapenak egingo ditu aurkeztutako datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

Jarduera egiteko bete behar diren baldintzak ez daude jasota txostenaren arauan eta beraz, orain ezinezkoa da betekizun hori baloratzea.

Dena dela, gogoan eduki behar da edozein jarduera hasteko betekizunak helburuak lortzeko beharrezkoak eta proportzionalak izan behar direla; gainera, operadoreek eta auzitegiek administrazioaren jarduera kontrolatzeko arrazoi egokiak jaso beharko ditu arauak. Bestela, justifikazio barik, merkatuan sartzeko oztopo bat izango dira eta inpugnatu ahal izango dira.

**15.** Arauak berak ezartzen du jarduera hasteko erantzukizuneko adierazpena jabeak sinatu behar duela, bai eta jardueraren kudeaketa egin behar duenak ere. Gainera, ondasun bakoitzeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, hau da, ezin da aurkeztu lokal bat baino gehiagoren datuak dituen adierazpen bakar bat.

Bi pertsonak ondasun berari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko betekizuna ez dago justifikatuta, eta eskakizun zehatzak ezagutu gabe ere, ez beharrezko oztopo bat sortzen du

Hori dela eta, aurreproiektu honetatik kendu behar da betekizun hori<sup>21</sup>.

**16.** Aurreproiektuaren artikulua ezartzen du turismo-administrazioak jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena modu telematikoan aurkeztea ahalbidetuko duela.

<sup>20</sup> Arauak honako hauek definitzen ditu: turismoa, turismo-jarduera, turismo-sektorea, turismo-baliabideak, turismo-administrazioak, turismo-zerbitzuak, turismo-produktua, turismo-enpresaren titularrak, turismo-enpresa, establezimendua (aurrekoaren irismen desberdina), erabiltzailea, turismo-lanbidea, turismo-eskaintza eta turismo-eskaintzaren kanala.

<sup>21</sup> 17/2009 Legeak ematen duen definizioarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena enpresa-jarduera edo jarduera profesional baten titularrak izenpetutako agiria da, eta bertan adierazten da, beraren erantzukizunpean, betetzen dituela dena delako jarduerarako legezko eta erregelamenduzko baldintzak, badituela hori hala dela egiaztatzeko agiriak, eta jarduerak irauten duen bitarte osoan beteko dituela.



Erantzukizunpeko adierazpen bat egoteak zama sortarazten die zerbitzua ematen dutenei. Horregatik, administrazioak ziurtatu behar du adierazpenak telematikoki aurkezteko beharrezko baliabideak jarri direla zerbitzuak eskaintzen dituztenen eskura, indarreko arauak eskatzen duten bezala<sup>22</sup>. Horrela bakarrik lortu ahal izango da helburua, zerbitzuak eskaintzen dituztenen eskubideei kalterik egin gabe eta beharrezkoak ez diren oztopoak sortu gabe.

## **B. Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa.**

**17.** Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzen dira turismo-enpresak eta haien establezimenduak edo Euskadin turismo-jarduera baten titular diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

Aurreproiektuaren 24.2 artikulua ezartzen du turismo-enpresek eta haien establezimenduek eta «turismo-arloko lanbideek» derrigorrean inskribatu behar dutela erregistro horretan. «Turismo-arloko lanbideak» aipamena ez da zuzena, turismo-zerbitzuak, legearen arabera, askatasunez ematen baitira, eta, beraz, «profesionalak» esan beharko luke. Egia da kontzeptua 2.2.k) artikuluan deskribatzen dela, baina ez da erraza ulertzen.

Bestalde, xedapen berak jasotzen du «turismo-izaerako jarduerak» egiten dituzten enpresa edo establezimenduentzat aukerakoa dela erregistroan inskribatzea; dena den, enpresa edo establezimendu horiek zehazten ez direnez, segurtasun juridikorik eza sortzen da.

Enpresa bat ezartzeko edo zerbitzuak emateko erregistro publiko batean derrigorrean inskribatzea oztopo bat da operadoreentzat, eta salbuespen gisa baino ezin da ezarri, hala egitea justifikatzen duten arrazoiak badaude<sup>23</sup>.

<sup>22</sup> 17/2009 Legea 17. artikulua. Prozedurak erraztea: 4. Zerbitzu-jarduera bat hasteko eta aritzeko prozedurak eta izapideak bide elektronikoak erabiliz egin ahal izango dira, eta urrunetik ere egin ahal izango dira, zerbitzua emateko erabiltzen den tokia edo ekipoa ikuskatu behar denean izan ezik. 18. artikulua. Leihatila bakarra. 1. Zerbitzuak ematen dituztenek, bide elektronikoren bat erabiliz eta urrunetik, leihatila bakar baten bidez honako informazio hau eskuratu ahal izango dute: zerbitzu-jarduera bat hasteko eta aritzeko beharrezko prozedurak, derrigorrezko izapideak, adierazpenak, jakinarazpenak, baimena lortzeko eskabideak, eta, halaber, erregistroetan, zerrenda ofizialetan, elkarteetan, elkargo profesionaletan eta elkargo horietako kontseilu nagusi eta autonomoetan inskribatzeko eskabideak. 2. Administrazio publikoek bermatu dute zerbitzu-emaleek leihatila bakarraren bidez hau egin dezaketela: a) jarduera hasteko eta aritzeko behar den informazioa eta idazkiak lortu. b) Behar diren agiriak eta eskabideak aurkeztu. c) Interesduna den neurrian, prozeduren izapideen egoeraren berri eduki eta derrigorrezko izapide-egintzen jakinarazpenak eta ebazpenak jaso administrazio-organo eskudunetik.

<sup>23</sup> Zerbitzuen Zuzentarauak, zerbitzuak emateko oztopoak murrizten dituenen, baimenaren kontzeptua eta erregistroan inskribatu beharra bateratzen ditu. Barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006an abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentzaraua: «Baimen araubidea» kontzeptuak barne hartu behar ditu, besteak beste, baimenak, lizentziak, homologazioak edo emakidak baimentzen diren administrazio-prozedurak, eta, halaber, jarduera batean jardun, elkargo profesional, erregistro, zerrenda ofizial eta datu-base batean inskribatuta egoteko betebeharra eta erakunderen batekin hitzarmena eduki edo txartel profesionala lortzeko betebeharra. Baimen bat bide desberdinetatik eman daiteke: batetik, erabaki formal baten bidez; bigarrenik, agintaritza eskudunaren administrazio-isiltasunaren



Kontuan hartu behar da operadoreentzat erregistroan inskribatzea automatikoa dela, eta, beraz, erantzukizunpeko adierazpena egiteko betekizunen beharrak eta proportzionaltasunak (geroagoko araudiaren garapenerako utzi da gai hori) zehaztuko dute erregistroa oztopoa den ala ez profesionalak merkatuan sartzeko.

**18.** Dena den, azpimarratu behar da arauak administrazio-kontrola baino ez duela ezartzen berme gisa: erantzukizunpeko adierazpena egotea eta bere eskaintzen baldintzak erregistroan inskribatzea.

Arauak ez du aipatzen turisten eskura jartzen diren lokalen baldintzak eskaintzarekin batera guztiz eskuratu daitezkeenik; izan ere, horrela izanez gero, erreklamazioak errealitatearekin bat ez datozen eskaintzetan oinarrituko lirateke.

Ildo horretatik, borondatezko erregistro-sistema batek (beste autonomia-erkidego batzuetan badago eta aurreproiektu honetan aurreikusten da sistema hori, baina bakarrik jarduera batzuetarako), eskaintzaren ezaugarri guztiei publizitatea emateko betebeharrekin batera (neurri handi batean, betebeharrak badaude erabiltzaile eta kontsumitzaileen babeserako arauetan), eskubideak bermatu eta babesteko helburua lortuko luke, eskaintzak egiteko baldintzak askoz ere gutxiago murriztuz. Horrela, erregistroak benetan abantailak ekartzen baditu, operadoreek beraiek eskatuko lukete inskribatzeko eta beren eskaintza kalitateagatik erakargarria litzateke (horrela gertatzen da kontsumo arbitrajearen kasuetan). Erabiltzailea ahalduz lortzen da, eskaintza bere kalitate-eskakizunen arabera aukera baitezake.

## **2. Elkarlaneko ekonomia**

### **A. Erabilera turistikoko etxebizitzak**

**19.** Aurreproiektuaren 53. artikulua turismo-erabilerarako etxebizitzaren erregulazioa jasotzen du; jarduera hori ez da berria, baina gora egin du etengabe<sup>24</sup>. Etxebizitza horiek honela definitzen ditu:

(...) Turismo- edo -opor-arrazoiengatik alojamendu bezala merkaturatzen diren etxebizitzak dira (...) jabeak, ustiatzaileak edo kudeatzaileak aldi baterako eta berehala erabiltzeko moduan lagatzen

---

ondoriozko erabaki inplizitu baten emaitza izan daiteke, eta hirugarrenik, interesdunak adierazpenaren jaso-  
agiria eskuratu beharra daukalako jarduera hasteko edo lege aritzeko.

<sup>24</sup> MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDEAREN txostena, IPN/CNMC/007/15 *Aragoiko Gobernuaren Dekretu proiektuari buruzko txostena, Aragoiko turismo erabilerako etxebizitzaren 2015eko apirilaren 16ko erregelamendua onesten duena*. Txostenak aipatzen du, FRONTURren azken estatistiken arabera, alokatutako etxebizitzetan ostatu hartzen duten turisten kopuruaren urtetik urterako igoera % 20,7 dela, eta sartzen diren turisten kopuruaren igoera % 5,3 dela (<http://www.cnmc.es/es-es/promoci%C3%B3n/informessobrenormativa.aspx?num=IPN/CNMC/007/15&ambito=Informes de Propuestas Normativas&b=&p=5&ambitos=Informes de Propuestas Normativas&estado=0&sector=0&av=0>).



dizkiete hirugarren batzuei. Maiztasunez edo ohikotasunez eta kontraprestazio ekonomiko bidez merkaturatzen dituzte, zuzenean edota zeharka, turismo-eskaintzen kanalak erabiliz.

Aurreproiektuaren 53.8 artikulua arabera, ohikotasuna dagoela ulertuko da, baldin eta etxebizitzaren publizitate- edo merkaturatze-ekintzak egiten badira turismo-eskaintzarako edozein bitarteko, euskarri edo kanal erabiliz, edo alojamendua ematen bada urtean bitan edo gehiagotan eta 31 egunean edo gutxiagoan.

Turismo-eskaintzaren kanalak aurreproiektuaren 2.2.m) artikuluan definitzen dira:

Pertsona fisiko edo juridikoak, zeinak erabilera turistikoko alojamenduen erreserbak egiteko edo zerbitzuak emateko kontratuak merkaturatzen edo sustatzen baitituzte modu eskusibo edo ez-esklusiboan, edo era horretako kontratuak hobetzen laguntzen baitute, edukiak lotuz edo ostatatuz. Adibidez, bidaia-agentziek, erreserba-zentroek eta zerbitzu turistikoko antolatzen dituzten eta zerbitzu horien bitartekariena egiten duten bestelako enpresek, baita bitartekaritza-kanalak – Interneten edo informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidezkoek – eta komunikabideetako publizitateak ere, edozein delarik haren tipologia edo euskarria.

Horrek esan nahi du sistema horren betekizunen menpean dagoela etxebizitza bat edozein bide erabiliz sustatzen duen pertsona fisiko edo juridiko.

Artikuluaren arabera, jardueran aritzeko derrigorrezkoa izango da erantzukizunpeko adierazpena egitea eta Euskadiko Turismo-enpresen eta -jardueren erregistroan inskribatzea. Adierazpen hori egin ezean, jarduera “**klandestino**”tzat joko da. Aurreproiektuak administrazioaren baimen-araubidea ezartzen du jarduera hasteko, Zerbitzuen Zuzentarauaren arabera.

**20.** Sistema horren bidez, edozein partikularrek, edozein bide erabiliz, bere etxebizitza urtean bi aldiz edo gehiagotan alokatu nahi badu 31 egunez edo aldi laburrago batez, aurretik etxebizitzaren ezaugarriei buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko du eta erregistroan inskribatu.

Bizi dugun elkarlaneko ekonomiaren errealitateak erakutsi du arau honetan ezarritako baldintzak ez direla egokitzen gizartearen eskaintza eta eskaera berrietara.

Gizartean gero eta handiagoa da ostatu-eskaintza berrien eskaera, eta eskaintzak malguak eta berritzaileak izan behar dira, eta, gainera, biztanleriaren sektore baten (zerbitzuen eskaintza-egileak eta zerbitzuen eskatzaileak) beharizanak betetzeko gai izan behar dute.

Baina ohikotasun-presuntzioak eta erregistroan inskribatu beharra oztopo dira errealitate horientzat. Kalitatearen eta prezioen kontrolerako sistemak sortu dituzte, ohiko sistemen desberdinak. Teknologia berriei esker, erabiltzaileek iritzia eman dezakete jasotako zerbitzuaren inguruan, eta zerbitzu-emailearen gaineko kontrola berehalakoa da eta zerbitzuen eskatzaile izango diren guztien eskura dago. Beharizan sortu berri horietara egokitzen ez den erregulazioak (adibidez, operadore ekonomikoen zerga-betebeharrak eta interes orokorreko arrazoi premiatsu baten inguruko arauak betetzen direla bermatzea helburu bakarra duena) porrot egingo du ezinbestez, errealitatearekin bat ez datorrelako.



Horrela, bada, beharrianaren, proportzionaltasunaren eta bereizkeria ezaren printzipioen arabera arrazoituta ez daudenez, baldintza horiek kendu beharko lirateke aurreproiektutik.

**21.** Hala ere, geroagoko arau-garapenerako uzten da araubide juridiko aplikagarria, eta batez ere, etxebizitza mota horren kategoriak, berezitasunak eta funtzionamenduak bete beharko dituzten baldintzak eta betekizunak.

Egiten den arau-garapenak erregulazio behararen analisia errespetatu beharko du, eta lortu nahi den helburuarekiko proportzionaltasuna ere bai<sup>25</sup>.

### **B. Ostatua turismo-erabilerako etxebizitza partikularretako geletan.**

**22.** Aurreproiektuaren 54. artikulua “helburu turistikoko etxebizitza partikularrak” izeneko logeletako ostatua arautzen du.

“Horrela bermatu ahal izango dituzte alojamendu-zerbitzu horien sustapena, eskaintzaren koordinazioa eta erabiltzaileen eskubideak”.

Turismo-erabilerako etxebizitzekin bezalaxe, jarduera mota honetarako alde aurretik baimena eskatu behar da, Zerbitzuen Zuzentarauarekin bat, eta erantzukizunpeko adierazpena ere behar da.

**23.** Turismo-erabilerako etxebizitzak izenekoei aplikatzen zaien sistemaren analisiaren emaitzak aplikatu beharko dira, arrazoi gehiagorekin gainera, logelen alokairuari (batez ere, 53.2; 53.7 artikuluetako baldintzak eta 53.8 eta 53.10 artikuluetako parametroak).

Errealitate berrietan ohiko ekonomia- eta kontrol-parametroen aplikazioak teknologia berriek baimendu eta sustatzen duten aurrerapena geldiarazi nahi du, bezeroek eta eskaintza-egileek ere eskatzen duten aurrerapena, alegia.

Ekonomiaren arlo berri hori “klandestinitatea”n sartzeari ez da bateragarria lehiaren agintaritza honek sustatu nahi dituen printzipioekin.

**24.** Gainera, “eskaintzaren koordinazioa” eta “sustapenaren bermea”ren helburuak, arauak jasotakoak, onartezinak dira.

Administrazioak inola ere ezin du zerbitzuen eskaintzan, ez merkataritza-politiken inguruko gaietan esku hartu, ezta merkatuaren banaketa errazten duten jokabideak sortu ere (turismo-eskaintza mugatuz esku-hartzea justifikatzen duten merkatuko akatsak ez daudenean).

---

<sup>25</sup> *Ibidem*





Merkatuaren banaketa ekarri edo bermatzen duten neurriak negatiboak dira erabiltzaileentzat, eta merkatuan ezarrita dauden operadoreei justifikatu gabeko babesaren eragiten die).

**25.** Halaber, larria da 54. artikuluaaren paragrafoaren 3. atalak ezarritakoa, hau da, titular batek etxebizitza batean baino gehiagotan logelak eskaini edo merkaturatzeko debekua, kasu horretan establezimendu horiek beste mota batekoak izango bailirateke. Bestalde, etxebizitza batean eskaini daitekeen gehieneko plaza-kopurua geroagoko arau-garapenerako uzten da.

Jabetzarako eta ekonomia-jarduerarako eskubidea horrela mugatzea ez dago justifikatuta eta, beraz, ez da onargarria.

### **C. Ustiapen-unitatearen printzipio eztabaidagarria**

**26.** Aurreproiektuaren 34. artikulua ezartzen du turismo-enpresek beren jardueran jardutean ustiapen-unitatearen printzipioarekin bat egingo dutela. Hau da, turismo-jarduera establezimendu bakoitzaren ustiapen-titulartasun bakarraren menpean dagoela.

Ustiapen-unitateak esan nahi du turismoko ostatu-zerbitzuak direla establezimendu batek hartzen duen eraikineko edo hartzen dituen eraikinetako ostatu-unitate guztiak, baita haren edo haien establezimendu bakoitzak hartzen dituen zati independente eta homogeneoak ere.

Printzipio hori bete ezean, arau-haustea izango da eta zehapena jarriko da.

**27.** Agindua irakurtzea nahasgarria da, ia-ia ulertezina.

Nahasmenduaren ondorioek lehia askearen interpretazio murriztailea ahalbidetzen dute, esaterako, honako hau:

- ustiapen-unitate bakarra.
- eraikin bateko ostatu guztiak ostatu-zerbitzuei lotuta egoteko betebeharra.

Bi betekizun horiek nekez izan dezakete justifikazio bat, lehia askearen ikuspuntutik, behintzat.

Betekizun biek enpresa-askatasuna murrizten dute, eta partikularren turismo-erabilerako ostatuak eskaintzeko aukera ere murrizten da; horrela, gero eta aukera gutxiago daude ohiko ostatuei alternatibak emateko, erabiltzaile eta eskaintzaileentzat interesgarria izan arren.

Agindu hori kenduta, ez dago oztoporik eraikin berean titulartasun desberdinetako apartamentuak edo logelak eskaintzeko, ezta erabilera horretako ostatuak eskaintzeko ere, gainerako enpenerako partikularra izanik.



Aurretik deskribatutako murriztapena bakarrik ezar daiteke interes orokorreko arrazoi premiatsuak daudenean, ezarritako arauak beharrezkoak eta egokiak direla justifikatu eta arau honetan egiaztatu ez direnak.

Ondorioztatu daiteke ustiapen-unitatearen printzipioak operadoreak merkatuan sartzea eta ekonomia-jarduera bat egitea eragozten duela, ez baitu uzten jarduera era independentean eta autonomoan garatzen; horrela, eskaintzaileen artean lehiatzeko ahalmena gutxitzen da, operadoreentzako kostuak handiagoak dira eta erabiltzaileek zerbitzuak eta prezioak hautatzeko aukera gutxiago daukate.

Hori guztia dela eta, ez dago justifikatuta proportzionaltasunaren eta beharrianaren arabera, eta lehiaren murriztapen handiak ekarriko lituzke.

#### **D. Ustiapen bateratuaren bateragarritasuna**

**28.** 39. artikulua arabera, turismoko establezimendu mota batzuk batera ustiatu ahal dira, arauz garatu ahalko diren baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Establezimendu guztiek antzeko kategoria eduki behar dute; hala ere, mota desberdinetakoak izan daitezke.
- b) Enpresa ustiatzaile bakarrak ustiatu behar ditu establezimendu guztiak.
- c) Establezimenduen arteko distantziak, gehienez ere, 250 m-koa izan behar du, eta desgaitasunen bat duten pertsonak erabiltzeko modukoa izan behar du, eta, oro har, pertsona guztiek era autonomoan erabiltzeko modukoa.
- d) Erregelamendu-baldintzak bete beharko dituzte batera ustiatzen diren establezimenduen azpiegitura komunek (egongelak, jangelak eta abar).
- e) Establezimendu horietako erabilera komunek azpiegiturak parteka daitezke, baldin eta estandar zorrotzenak betetzen badira.

Batera ustiatuko diren establezimenduak “antzeko” (kontzeptu zehaztu gabea da eta ez du segurtasun juridikorik sorrarazten) kategoriakoak izan beharra ez dago justifikatuta, ez establezimenduak enpresa bakar batek ustiatu beharra, ez eta establezimenduen gehieneko distantzia ere<sup>26</sup>.

Beraz, eskakizun horiek kendu behar dira.

### **3. Arau-hausteen ondorioak eta zehapenak**

**29.** Araua ez betetzeagatik sortzen den ondorio juridikoak disuasio-helburua (zehapenak badira), kalteen konpentsazioa eta, batez ere, neurrien proportzionaltasuna bete behar ditu.

---

<sup>26</sup> Zerbitzu-jarduerei sarbide libreari eta haien erabilerari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 11. artikulua.



Ez betetzeen, haien eraginen eta ondorio juridikoen artean proportzionaltasun-loturarik ez badago, operadoreen jarduerari muga desegokia jarri ahal zaio, eta, are gehiago, operadore txikiak ere gainditu ezin dezakeen muga.

**30.** Hori horrela, testuaren inguruan zenbait kautela-neurri planteatu ahal dira.

21.1 artikulua, esaterako, turismo-arloko organo eskudunek inskripzioa ezabatuko dutela ezartzen du, “baldin eta antzematen badute jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenean edo hari atxikitako dokumentuetan jasotzen diren funtsezko datuak zehaztugabeak edo faltsuak direla edo funtsezko datuak falta direla, edo antzematen badute nahitaezko dokumentazioa falta dela edo ez direla betetzen aplikatu beharreko betekizunak”. Horrelakoetan, inskripzioa ezabatzeaz gain, egitate horien berri jasotzen den unetik ezin izango da jardun turismoan, dagokion prozedura bideratuta. Aginduaren idazketa nahasgarria da (ematen du jarduera eteteko kautelazko neurria har daitekeela administrazio-prozeduraren aurretik), eta, gainera, agerian dago neurria gehiegizkoa dela. Hirugarrenei eta merkatuari eragin negatiborik ez dakarkien administrazio-arloko ez-betetze huts batek halako ondorioak ekartzea (inskripzioa ezabatzea eta beraz, jarduera uztea) onartezina da.

Gauza bera esan daiteke proposatutako testuak ezartzen dituen arau-hausteei buruz. Agerian dago ez dela onargarria arauan ezarritako zenbait baldintza (justifikaziorik ez duten sarbide-mugak) ez betetzea arau-hauste larri edo arau-hauste oso larrien artean sartzea. Eta gauza bera hirugarrenei kalterik ez dakarkien ez-betetze formalei buruz (92. eta 93. artikulua).

Baieztapen berdina egin daiteke aipatutako arau-haustea direla eta arauan aurreikusitako diruzko zehapen edo zehapen osagarriei buruz. Arau-hausteen kategoria bakoitzean arau-hauste desberdinen zerrenda luzeak egotea eta zehapenak kategoriaren arabera gutxienekoa aurreikustea ez dago proportzian ezarritako isunen edo zehapenen zenbatekoaren aldean.

#### **4. Merkatuan lehia eragina izan dezaketen beste kontu batzuk**

##### **A. “Lehia desleialari, legez kanpoko eskaintzari edo klandestinoari eta intrusismo profesionalari” buruzko arauaketa.**

**31.** Arauak dio, besteak beste, “lehia desleiala eta legez kanpoko eskaintza edo klandestino desagerraraztea” duela helburu (27. artikulua)<sup>27</sup>. 28. artikulua zenbait

<sup>27</sup> 1. Turismo-jarduera bat edozein baliabideren bidez zabaltzea edo merkaturatzea edo egitea, baldin eta jarduera hasteko ardurapeko adierazpena aurkeztu ez bada, legez kanpoko eskaintzat edo jarduera klandestinitzat hartuko da, eta, ondorioz, dagokion zehapen-espeditentia irekiko da; Lege honetan aurreikusitakoa bete beharko da.



jarduketa jasotzen du (jarduera klandestinoa, legez kanpoko eskaintza, intrusismoa eta lehia desleiala), debekatutzat jotzeagatik, "kontrolatu eta zehatu" egingo direnak.

#### **a. Lehia desleiala**

**32.** Aurreproiektuak jasotzen du administrazio-agintariak "lehia desleiala" "kontrolatu eta zehatuko" dutela.

Lehia desleiala indarrean dagoen Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legean (LDL) dago araututa<sup>28</sup>. Arau horrek bertan tipifikatutako lehia desleialeko ekintzen debekua ezartzen du.

LDLak oso debeku zehatzak ditu, eta lehia desleialeko ekintzatzat hartzen diren jarduerak zehazten ditu, bai eta ekintza horien ondorioz gauza daitezkeen ekintza judizialak ere.

LDLak klausula orokorra du (4. artikulua), eta horrek ezartzen du "kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan fede onaren exijentzien aurkakotzat joko dela enpresari edo profesional batek lanbide-arretaren aurka duen jokabidea -lanbide-arreta hori enpresari batengandik espero diren gaitasun-maila eta zaintza berezi gisa ulertzen da, merkatuko praktika zuzenen arabera direnak-, batez besteko kontsumitzailearen edo praktikaren hartzaile den batez besteko taldeko kidearen portaera ekonomikoa modu esanguratsuan desitxuratzen duena edo desitxura dezakeena, kontsumitzaile-talde zehatz bati zuzendutako merkataritza-praktika bada".

Klausula orokor horrekin batera, desleialtzat arau horren 5. artikulutik 31. artikulura tipifikatutako praktikak baino ezin dira jo, besteak beste, arauen urraketa. Publizitatea dela

---

2. Legez kanpoko eskaintzatzat eta jardueratzat hartzen dira Lege honetan aurreikusten diren eta Lege honetan ezartzen diren baldintzak betetzen ez dituen edozein ostatu-figuratan turismo-egonaldia zabaltzea eta/edo merkaturatzea.

3. Jarduera klandestinoa, legez kanpoko eskaintza, intrusismoa eta lehia desleiala kontrolatu eta zehatu egingo dira.

4. Turismo-enpresen zerbitzuak edozein baliabideren bidez egitea edo zabaltzea, beren jarduerak hasteko bete behar dituzten eskakizunak hautsita, intrusismo profesionaltzat hartuko da, eta administrazioaren bidetik zehatuko da, Lege honetan aurreikusitakoa kontuan hartuta. Euskadiko turismo-administrazioak bereziki teknologia berrien erabileraren ondoriozko intrusismoa ikuskatuko du.

5. Debekatuta dago jardueraren sailkapenari, kategoriei edo ezaugarriei buruzko akatsa eragin dezakeen edozein turismo-jardueraren izendapenak erabiltzea.

Debekatuta dago Euskadiko Enpresa eta Jarduera Turistikoaren Erregistroan inskribatuta ez dauden ostatuak "oporretako", "turistiko" edo antzeko izendapenak erabiltzea.

<sup>28</sup> 3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Lehia Desleialari buruzkoa. 1991ko urtarrilaren 11ko 10 zenbakiko BOE.



eta, Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorrak legez kontrakotzat jotzen dituen praktikak baino ezin dira jo desleialtzat <sup>29</sup>.

**33.** Ez da egokia "Lehia desleial"ari aurreproiektuan eginiko erreferentzia orokorra.

Lehia desleiala terminoa aurreproiektuan erabiltzen da, LDLan jasotakoa baino eduki zabalagoarekin. Hori dela eta, aurreproiektuaren testuak akatsa eragin dezake erabiltzaileengan.

LDLan tipifikatuta ez dagoen ekintza bat ere lehia desleialtzat hartu ezin dela kontuan hartuta, lehia desleialaren inguruko aipamena aurreproiektutik kendu behar da.

**34.** Bestalde, LDLak zehazki ezartzen ditu debekatzen dituen jokabideek eragin ditzaketen ekintzak, eta horiek izaera judiziala dute. Hala ere, aurreproiektuaren 27.3. artikulua ezartzen du administrazio-agintariak jokabide horiek kontrolatzeko eta zehatzeko ahalmena dutela.

Aipamen horiek aurreproiektutik kendu behar dira.

#### **b. Intrusismo profesionala.**

**35.** Aurreproiektuak honela definitzen du intrusismo profesionala: "turismo-enpresen zerbitzuak ematea edo haiek edozein bidetatik iragartzea, baldin eta ez badira betetzen zerbitzu horiek ematen hasteko eskatzen diren betekizunak". Praktika hori arau-haustetzat jotzen da, eta administrazio-zehapena dakar. Aurreproiektuak hauxe dakar: "Batez ere teknologia berriak erabiliz sortzen den intrusismoa behatuko du Euskadiko Turismo Administrazioak".

Zigor Kodearen 403. artikuluan tipifikatutako delitua da intrusismoa. Lanbide baten berezko ekintzak dagokion titulu akademikoa eduki gabe egitea da. Jarduketa horrek zehapen handiagoa edo txikiagoa dakar, gaikuntza-titulua behar duten jarduerak egiten diren ala ez kontuan hartuta, jendearentzako zabalik dagoen establezimendu batean, lanbide horren berezko zerbitzuen prestazioa iragarrita<sup>30</sup>.

<sup>29</sup> 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitateari buruzkoa. 1988ko azaroaren 15eko 274 zenbakiko BOE.

<sup>30</sup> Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, 403. artikulua. 1995eko azaroaren 24ko 281 zenbakiko BOE:

1. Espainian indarreko legeriaren arabera emandako edo aitortutako titulu akademikoa egokirik gabe lanbide bateko berezko ekintzak gauzatzen dituenak hamabi eta hamalau hilabete bitarteko isun-zigorra jasoko du. Garatutako lanbide-jarduerak beharrezko gaikuntza egiaztatzen duen eta jardunerako legez gaitzen duen titulu ofiziala eskatzen badu, eta titulu hori eduki ezean, sei eta hamabi hilabete bitarteko isun-zigorra ezarriko da.

2. Sei hilabete eta bi urte arteko espetxe-zigorra ezarriko da, honako gertakariaren batean:



Pertsona batek lanbide-jarduera dagokion titulu akademikoa eduki gabe egiteak dakarren zigor-gaitzespenaren justifikazioa horrek osasunean, segurtasunen edo ordena publikoetan izan dezakeen eragin berezian oinarritzen da. Aurreproiektuak ez du eskaintzen zerbitzuak emateko askatasunari jarritako muga bat justifika dezaketen "konstituzionalki esanguratsuak diren xede publikoak" babesteko beharra erakusten duen daturik.

Hala ere, aurreproiektuak "intrusismo" hitza erabiltzen du, lanbide edo jarduera bat gauzatzeko beharrezkoa den lanbide-titulaziorik ezarekin zerikusia izan beharrean (ez da beharrezkoa araututako kasuetan), jarduerak hasteko turismo-enpresei eska dakizkiekeen eskakizun ezarekin zerikusia duen jokabidea zehazteko.

Hori guztia kontuan hartuta, aurreproiektuaren lanbide-intrusismoari eginiko aipamena kendu behar da.

### **c. Legez kanpoko eskaintza edo klandestino**

**36.** Aurreproiektuak "Legez kontrako eskaintza edo klandestino" izendatzen du bertan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituen.

Aurreproiektuan turismo-zerbitzuak emateko ezarritako eskakizunak teknologia berrien etengabeko bilakaerak eskaintzen dituen aukerak ditu aurrez aurre, eta ez dira gizartearen behar berrietara egokitzen.

Hori dela eta, legez kanpokotzat edo klandestinitzat jotzea aipatutako praktika horiek, horiek ezabatzea eta, nolana ere, horiek zehatzea proportziorik gabekotzat jo behar da, printzipio beretan oinarrituta.

### **B. Lanbide turistikoak**

**37.** Aurreproiektuak aitortzen du "Turismo Administrazioak behar beste neurri hartuko ditu turismo-lanbideetan prestatzeko, jarduteko eta perfektionatzeko, turismo-sektorearen onerako izan daitezkeen arlo guztien ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatuz".

Aurreproiektuak turismo-lanbideak turismoaren inguruan orientatzeko, zabaltzeko, informatzeko eta laguntzeko zerbitzuak bezala definitu ditu, bai pertsona fisikoek, bai juridikoek eman ohi dituztenak, ordainpekoak, eta arauz hala zehazten direnak. Testuko V. kapitulua (64. eta 65. artikulua) aurreproiektuak "turismoko lanbideak" izendatzen dituenari buruzkoak dira.

---

a) Errudunak, gainera, aipatutako tituluak babestutako lanbide-ezaugarria publikoki bere egingo balu.

b) Errudunak aurreko atalean adierazitako ekintzak jendearentzako zabalik dagoen lokal edo establezimendu batean gauzatzen baditu eta, bertan, lanbide horren berezko zerbitzuak eskaintzen direla iragartzen bada.



### **a. Turismo-gidak**

**38.** Aurreproiektuak xedatzen du turismo-gidaren jarduera, oro har, emateko askea izango dela. Hala ere, salbuespen bat ezartzen da Euskadiko kultura-ondarearen kategorietako bati dagokion ondasun gisa katalogatutako elementuen barruan garatuko den jardueretarako.

Aurreproiektua ez dator bat turismo-gidaren zerbitzua emateko jardueraren arauketaren garapenarekin, baina arautzen du, Euskadin gida gisa ezartzeko eta jarduera-zerbitzua aske emateko ez diren lekuetan garatzeko, "dagokion gaikuntza eduki beharko da, Administrazioak emana araudiak aurreikusitako baldintzetan" eduki beharko dela. Bai gaikuntza, bai haren aitortzea lortuta, ofizios inskribatuko da Euskadiko Enpresa eta Jarduera Turistikoen Erregistroan.

Era berean, adierazten da beste autonomia-erkidego batzuetan edo EBko estatu kideetan aitortutako edo gaitutako pertsonak jarduera ematea askea ez den lekuetan gauzatu ahalko dutela, aldi baterako, baldin eta aurretiko adierazpena egiten badute, "araudiak aurreikusten duen baldintzetan".

**39.** Aurreproiektuak aurretiko administrazio-baimenaren araupean jartzen du turismo-gidaren jardueraren hasiera, zerbitzua ematea askea ez den lekuetan. Betebehar hori salbuespen gisa baino ezin da ezarri, eta hura justifikatzen duten motiboak daudenean.

Aurreproiektuaren zioen azalpenak ez du ziorik adierazten gida-lanetan jarduteko aurretiko gaikuntza edukitzera behartzen duenik, Euskadiko Kultura Ondareari buruzko Legean katalogatutako lekuetan. Bestalde, ez da justifikazio-memoriarik bidali.

Ziorik ezean, LEAk gogorarazten du aurretiko baimena bakarrik eska daitekeela interes orokorreko zioak justifikatzen diren kasuetan eta, bestela, ezabatu beharko litzatekeela.

**40.** Bestalde, ohartarazi behar da arauan gerora egiten den araudi-garapenean ez dela sartu behar hainbatetan adierazitako beharrianaren, proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen ez dituzten jardueren oztopoak.

Horrela, aurreproiektuan eskatutako gaikuntza ezabatzen ez bada, zerbitzua ematea askea ez den lekuetan gida turistiko gisa gaitzeko beharrezko eskakizunen artean, esaterako, ez dira sartu beharko jardueraren lurralde-murrizketak (besteak beste, lurralde jakin batean bizitzea) edo hura emateko gorabeherak.

### **b. Prestakuntza**

**41.** Aurreproiektuak aurreikusten du Euskadiko turismo-administrazioak behar beste neurri hartuko dituela, turismo-lanbideen berezko jardueren lanbide-prestakuntzan eta arautuan hobekuntza eta garapena egoteko.



42. Ezin zaio gaitzespenik egin merkatu horretan emandako turismo-zerbitzuen kalitatean hobekuntzak lortzearren eginiko ahaleginari.

Hala ere, araudi-xedapenek eta helburu horiek betetzeko egiten diren jarduketa zehatzek jardueran hasteko edo jarduteko oztopoak sartzeari saihestu beharko dute, besteak beste, Legeak lanbidean jarduteko babesten ez dituen gaikuntza-titulua sortzea<sup>31</sup>.

### C. Izendapenen erreserba

43. Aurreproiektuaren 27.5 artikulua honako hau ezartzen du:

"Debekatuta geratzen dira jardueraren sailkapenari, kategoriei edo ezaugarri buruzko erroreak eragiten dituzten izendapen guztiak". Debekatuta dago Euskadiko Enpresa eta Turismo Jardueren Erregistroan inskribatuta ez dauden ostatuak "oporretako", "turistiko" edo antzeko izendapenak erabiltzea".

44. "Oporretako", "turistiko" terminoak, bai eta "antzeko" termino zehaztugabeak (segurtasun juridikorik eza eragiten du) ere erregistroan inskribatutako ostatuertarako gordetzeak ez du beharizanaren iragazketa gainditze eta ez du justifikaziorik arauketa eraginkorraren ikuspuntutik.

"Oporretako" eta "turistiko" terminoak oso ohikoak dira egunerokotasunean; beraz, hain erabilera hedatua duten termino horien erabilera benetako beharizanagatik baino ez da murriztu behar, eta beharizan horiek ez dira aurreproiektuaren zioen azalpenen justifikatu<sup>32</sup>.

Hori dela eta, erreserba hori aurreproiektutik ezabatu behar da.

<sup>31</sup> Horren harira, ikus LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK igorritako txostena. *Euskadin kirolaren inguruko lanbideetan sartzeko eta jarduteko lege-aurreproiektuaren txostena, 2015eko martxoaren 3koa* ([http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/informe%20deporte%20definitivo%20web%20es.27-02-2.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/informe%20deporte%20definitivo%20web%20es.27-02-2.pdf))

<sup>32</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Zerbitzuen Zuzentaraua sartu ondoko lanbide-elkargoei buruzko txostenean*. Madril, 2012ko apirilaren 26a, in CNC, <http://www.cncompetencia.es/Inicio/Noticias/tabid/105/Default.aspx?Contentid=475051>, honako hau adierazi zuen lanbide-zerbitzuen eremuan izendapenen erreserbei dagokienez: "Derrigorrean elkargoan egoteko beharrik gabeko lanbide-elkargo batzuetako elkargokideek salbuespen gisa gozatzen dute lanbide-izendapen zehatz baten pribilegioaz, kontuan hartuta izendapen hori egiten duten lanbide-jarduerarekin zuzenean identifika daitekeela. **Izendapenen erreserba** horrek elkargoko kide ez direnen lanbide-jarduerara zaildu dezake eta, beraz, mugatu egiten du dagokion lanbide-merkatura sartzeari. Horrenbestez, murrizketa mota horrek elkargokide derrigorrean egiteak duen eragin bera izan dezake; izan ere, profesionala elkargoko kide egin beharko da, lehiaketarako desabantaila esanguratsurik ez edukitzeko, lanbide-izendapen egokia erabil dezaketen profesionalen aldean. (...) **Elkargoko kide izatea derrigorrezkoa ez den lanbideetan, horrelako murrizketek ez dute justifikaziorik**".





## **D. Salmenta ibiltariari buruzko aipamena**

**45.** Merkataritza Jarduerari buruzko Legean xedatutakoarekin bat, salmenta ibiltaritzat, merkataritzako establezimendu batetik kanpo, desmuntagarriak diren postu edo instalazioetan eta ibilgailuetan egindakoa ulertzen da<sup>33</sup>. Salmenta ibiltarirako, espazio publikoetan egiten denean, baimen egokia beharko da.

**46.** Aurreproiektuaren 28. artikulua adierazten du, batetik, debekatuta dagoela salmenta ibiltaria turismo-establezimenduen barruan. Agindua, beraz, hainbat ikuspegitatik aztertu behar da.

Lehenengo eta behin, aginduak salmenta ibiltari izendatzen duena ez dirudi bat datorrenik legezko kontzeptuarekin; beraz, arau-arloko arazo teknikoa dakar.

Alde batetik, badago berariazko araudi bat, Merkataritza Jarduerari buruzkoa; hori salmenta-modalitate horien arauketaz eta kontrolaz arduratzen da, eta ez dirudi justifikatuta dagoenik merkataritza-jarduerak turismo-jarduera arautzen duen arau batean arautzea.

Justifikazio gutxiago du salmenta bat debekatzea turismo-establezimendu batean. Oro har, zerbitzuak ematen dituztenei ezin zaie mugatu zenbait jarduera gauzatzea, gertakari zehatz batzuk egon ezean, besteak beste, interesen gatazkak (kasu honetan ez da halakorik gertatzen).

Ondorioz, ezabatu beharko litzateke establezimenduetan saltzeko debekua<sup>34</sup>.

## **E. Bitartekaritza-lana egiten duten turismo-enpresei jarduera erreserbatzea eta mugatzea.**

**47.** Aurreproiektuaren 55. artikulua bitartekaritza-lana egiten duten turismo-enpresak honela definitzen ditu: erregelamenduz zehazten diren eskakizunak beteta, lanbidez turismo-zerbitzuen aholkularitza-, antolaketa- eta bitartekaritza-jarduerak gauzatzen dituztenak, horiek gauzatzeko berezko baliabideak erabiltzeko aukerarekin. Bitartekaritza-lana egiten duten turismo-enpresatzat hartzen dira honako hauek:

- a) Bidaia-agentziak.
- b) Elkartutako enpresen turismo-eskaintzen merkaturatze bateratua helburu duten turismo-enpresen taldekatzeak.
- c) Erreserba-zentralak eta turismo-bitartekariak eta turismo-operadoreak.

<sup>33</sup> Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Euskal Legearen 15. eta 23. artikulua. 1994ko ekainaren 13ko 111 zenbakiko EHAA.

<sup>34</sup> 25. artikulua. Diziiplina anitzeko jarduerak. 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueren sarbide libreari eta haien erabilerari buruzkoa.



55. artikuluko 3. idatz-zatiak dio aurreko puntuko b) eta c) ataletan adierazitako bitartekaritzako enpresen **helburu bakarra** izango dela turismo-enpresen baterako eskaintzak merkaturatzea, eta debekatu egiten du Euskadin erabiltzaile turistikoak hartzea edo jasotzea eta bertan turismo-zerbitzuak ematea ez den beste edozein jarduera gauzatzea.

48. Aurreproiektuak jarduera-erreserba egiten du bidaia-agentzien alde; horiek bidaia konbinatuak merkaturatu eta antolatu ditzaketen erakunde bakar gisa aitortzen ditu.

49. Jardueraren erreserbak dira merkaturako operadore ekonomikoen zati bati eskumen eskusiboa esleitzea; horrek murrizketa bat dakar helburu den merkatuaren lehia eraginkorrean<sup>35</sup>.

"Merkatuan operadore kopuruaren eta aniztasunaren inguruan dagoen mugaketak ondorio negatiboa du lehian, eta hori gauza daiteke, *caeteris paribus*, merkatu honetan lehiatzeko eskumena duten operadore guztien jarduerarako aukera egonez gero leudekeen kontsumitzaile-prezio altuagoetan. Prezio handiago horiek kostu handiagoak dakartzate eraikinen ebaluazio-txostenen hartzaileentzat, eta horrek kaltea dakar ekonomiarentzat eta, azken batean, herritarren ongizatearentzat."<sup>36</sup>

50. Bidaia-agentziak arautzeko egingo den arauketa-garapenak orain arte aipatu ditugun arauketa eraginkorraren printzipioei jarraitu behar die. Oro har, ezin da mugatu erakunde batek zerbitzu batzuk ematea, interes-gatazkarik ez badago<sup>37</sup>.

Deigarria da aurreproiektuak aurreikustea agentzia horiek jardueran mugaketak edukitzea, kontuan hartuta Turismoaren antolaketari buruzko 6/1994 Legearen 29. artikulua apirilaren 23ko 7/2012 Legearen bidez aldatu zela, zehazki eskusibitatearen eskakizuna ezabatzeko bere jardueran eta helburua zabaldu ahal izateko eta beste zerbitzu mota batzuk egin ahal izateko<sup>38</sup>.

<sup>35</sup> Lanbide-zerbitzuetan jardueraren erreserbak direla eta, MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALAK aukera izan du zenbait txostenetan bere iritzia adierazteko; oraintsukoa da eraikinen ebaluazioaren jarduerari buruzkoa. INF/DP/0021/14. Hirigintzaren arauketan aurreikusitako eraikuntzen ebaluazioaren jardueran jarduera-erreserbei buruzko txostena. ([http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes\\_sobre\\_normativa/2014/201501\\_INF\\_DP\\_0021\\_1\\_4\\_ReservaActividadIEE .pdf](http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Informes_sobre_normativa/2014/201501_INF_DP_0021_1_4_ReservaActividadIEE.pdf))

<sup>36</sup> *Ibidem*.

<sup>37</sup> 25. artikulua. Diziiplina anitzeko jarduerak. 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueren sarbide libreari eta haien erabilerari buruzkoa. 2009ko azaroaren 24ko 283 zenbakiko BOE.

<sup>38</sup> 29. artikulua. Jatorrizko idazketak honela definitzen ditu bidaia-agentziak: "lanbidez eta merkataritza-arloan, turismo-zerbitzuetako bitartekaritza eta antolaketan eskusiboki lanean ari diren pertsona fisiko eta juridikoak".



## F. Lurralde Plan Sektorialak eta Gidariak

**51.** 5.1 g) artikulua ezartzen du Euskadiko administrazioari dagokiola "turismo-baliabideen antolaketako helmuga turistikoaren Lurralde Plan Sektorialak eta Estrategikoak onesteko" eskumena.

**52.** Sarritan, lehiaren agintariek hirigintza-plangintzaren tresnen ondorioz sartzeko dauden oztupoak justifikatu gabeen inguruan hitz egin dute<sup>39</sup>.

Hori dela eta, txosten honen helburu den gaiaren inguruan aipatutako plangintza-tresna zehatzak diseinatzeko orduan, bertan adierazitako beharrezaren, proportzionaltasunaren eta gutxieneko distortsioaren aurretiko analisia egin beharko da. Horrela, murrizketak saihestu beharko dira lurzorua erabileran, besteak beste, erabileraren moten arteko edo lehiakideen arteko gutxieneko distantzien ezarpena edo ezaugarri jakin batzuen establezimenduen gehieneko kopurua. Lurzorua erabileran dagoen edozein murrizketak justifikatuta egon beharko luke interes orokorreko helburua lortzean, eta neurri proportzionatu eta ez diskriminatzaile baten bidez egin beharko litzateke.

## G. Erantzukizun zibileko aseguruak

**53.** 20.5 artikulua adierazten du zerbitzu-emaitza erantzukizun zibileko, fidantzako edo bestelako berme baliokideko poliza kontratatu behar dituztela, betiere, arrisku zuzena eta zehatza badago osasunerako, hartzailearen edo hirugarren baten segurtasun fisikorako edo hartzailearen finantza-segurtasunerako, erregelamenduz zehazten den moduan eta zenbatekoan.

Aurreproiektuak araudi-garapenaren esku uzten du erantzukizun-aseguruak eduki behar dituen eskakizun zehatzen erabakia<sup>40</sup>. Gogorarazi behar da proportzionaltzat jotzen ez

<sup>39</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA "Lehia-arazoak Espainiako lurzoruko merkatuan". Gomendioen artean honako hau jasotzen da: sustatu behar den hirigintza-plangintzaren kalifikazioak mugatutako erabilerak ez dira beharrezanik gabe zehaztu eta xehatu behar, malgutasuna handitzeko, segmentazioa murrizteko eta eskumena hobetzeko lurzorua erabileran. LEHIAREN BATZORDE NAZIONALAK *Elikadura-sektoreko fabrikatzaileen eta banatzaileen harremanei buruzko txostenaren* azpimarratu zuen operadore berriek merkatuan sartzeko eta zabaltzeko dauzkaten oztupoak, zenbait hirigintza-plangintza merkatari-espazioarentzat jasotako murrizketen ondorioz; AUTORITAT CATALANA DE LA COMPETENCIA "Efectos del carácter restrictivo de la normativa comercial sobre la competitividad de la economía catalana (1997-2012)", 2012ko abendua. Bertan, besteak beste, sektore-plangintzaren tresnetan ezarritako oztupoak ezabatzearen ondorioz merkatari-jardueran sartutako aldaketak aztertzen dira.

<sup>40</sup> 21. artikulua. 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueren sarbide libreari eta haien erabilerari buruzkoa. Lanbide-erantzukizuneko aseguruak eta bermeak.

1. Zerbitzu-emaitzei eskatu ahalko zaie, lege-izaerako arauan, erantzukizun zibil profesionaleko aseguruak edo zerbitzua ematean eragin ditzaketen kalteak babesteko dituen bestelako berme baliokideko poliza, betiere, arrisku zuzena eta zehatza badago osasunerako, hartzailearen edo hirugarren baten segurtasun fisikorako edo hartzailearen finantza-segurtasunerako.



diren aseguru-baldintzen eskakizuna, lortu nahi den helbururako, sarrera-oztopo ez justifikatuak eragiten dituztenentzat hartzen direla.

## H. Ekimen pribatua bultzatzea

**54.** Turismo-politikaren jarduketan artean, administrazio publikoek turismo-baliabideak sortzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko sustapena egitea aurreikusi da eta, horretarako, "helburu hori duten ekimen publiko eta pribatuei laguntza ematea" (Aurreproiektuaren 4.5 artikulua).

**55.** Administrazio publikoek, beste eskumen batzuen artean, laguntza publikoen deialdia egitea eta horiek ematea dituzte. Laguntza edo diru-laguntzat hartzen da funts publikoen doako erabilgarritasun oro, interes edo erabilgarritasun sozialerako jardura bat sustatzea eta xede publiko bat lortzea helburu duten pertsona edo erakunde publiko edo pribatuen aldekoa, bai eta administrazio publikoen aurrekontuen kargura ematen den edozein laguntza mota ere.

Laguntza publikoak ematea da sektore publikoak ekonomian esku hartzeko modu bat, kalte egin gabe interes orokorreko helburuak betetzeko nahiari, merkatuen funtzionamendua alda dezakeena, distorsioak eta eraginkortasunik ezak sartuz eta neutraltasun lehiakorra eta, azken batean, lehia libreka kaltetuz<sup>41</sup>.

**56.** Aurreproiektuak ez du zehazten zer neurri hartuko duen administrazio publikoak ekimen pribatuaren bidez garatutako turismo-politikaren jarduketak bultzatzeko.

Politika zehatzak laguntza edo diru-laguntza publikoetan oinarritzen badira, administrazioek beharrezko aurreikuspenak egin beharko dituzte, horietara berdintasunez eta **diskriminaziorik gabe** sartzen dela ziurtatzeko, eta, horretarako, deialdi publikoak diseinatu beharko dituzte –diru-laguntza zuzenak edo nominatiboak eman gabe, ez baitute bermatzen berdintasunez jo ahal izatea eta lehia–, eta horietan sartzeko eskakizunek justifikatuta egon beharko dute eta bete nahi den helbururako beharrezkoak izan beharko dute.

Era berean, beharrezko kautela-neurriak hartu beharko dira, emango diren laguntzek ez aldatzeko merkatuen ohiko funtzionamendua eta ez sartzeko distortsiorik eta eraginkortasun ezarik, erabilera desegokiagatik eta proportziorik gabeko eta eraginkortasun gabeko erabileragatik; horrek enpresen lehiakortasuna murriztuz lezake.

---

Eskatutako bermeak babestutako arriskuaren izaeraren eta irismenaren proportzioan joan beharko du.

<sup>41</sup> Horren harira, ikus laguntza publikoei buruz MLBNk urtero igortzen dituen txostenak, bere web-orrialdean. MERKATU ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, azkena. IAP/CNMC/001/15. MNBNren 2015eko txostena, Espainiako Laguntza Publikoei buruzkoa.



Diru-laguntzetara jotzeko eta horiek emateko eskakizunak diru-laguntzen araudi berezian daude araututa; EAEko administrazio orokorrean, Euskadiko Ogasuneko Printzipio Antolatzaileen Lege Orokorrean<sup>42</sup>.

Laguntzak eta diru-laguntzak araei jarraiki eman behar dira; horiek ziurtatu beharko dute ezartzen dituzten eskakizun guztiak jasotzen dituzten guztien lehia librea, bertara berdintasun-egoeran sartuz..

**57.** Horren harira, arduratzekoa da aurreproiektuaren 24.2 artikuluan xedatutakoa; izan ere, laguntza publikoetara jotzeko baldintza gisa ezartzen du aurretik Euskadiko Enpresa eta Turismo Jardueren Erregistroan inskribatu behar dela.

Eskakizun hori diskriminatzailetzat jo daiteke, kontuan hartuta jardueraren erregistroa hautazkoa dela kasu batzuetan.

Modu berean, arduratzekoa da aurreproiektuak kautela bereziei buruzko aipamena egitea, beren zerbitzuak emateko teknologia berriak baliatzen dituzten negozioen kasuan, kontuan hartuta praktikak erakusten duela horiek, sarritan, erabiltzaileentzako abantailazko eskaintzak egiten dituztela; kasu honetan, ordea, berariazko mesfidantzaz eta legegileak motibatu gabekotzat ikusten dira eskaintza horiek.

### **I. Ostaturako turismo-enpresen sailkapenaren sinbolo egiaztatzaileak**

**58.** Aurreproiektuaren 36.1 artikulua “aloramendu-enpresa turistikoen sailkapena”ari buruzkoa da, eta ustiapen-helburuaren arabera sailkatzen ditu, honela:

- a) Ostatu-establezimenduak.
- b) Erabilera turistikorako etxebizitzak.
- c) Etxebizitza partikularretako logelak erabilera turistikorako.

3. idatz-zatiak adierazten du, erregelamenduz, ostaturako turismo-enpresen sailkapena kategoria edo mailen arabera ezarriko dela, eta, horretarako, zenbait alderdi hartuko dira kontuan.

6. idatz-zatiak, bestalde, honako hau ezartzen du: “Establezimenduetan, kanpotik ikusteko moduko toki batean jarri beharko dira sailkapena adierazten duten ikurrak, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan”.

**59.** Sinbolo horiek guztiak erakusteko beharraren aurkako txostena eman behar da.

Ez da aurkitzen erakusketa publikoa eta kategoria edo mailen erakusgarritasuna erabiltzailearen onerako dela adierazteko justifikaziorik, are gehiago erabilera turistikoko

---

<sup>42</sup> 1/1997 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasuneko Printzipio Antolatzaileen Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duena. 1998ko urtarrilaren 19ko 11 zenbakiko EHAA.



etxebizitzen edo etxebizitzetako logelen inguruan denean. Kasu horietan, zehazki, eskakizuna izan liteke jardueraren eskubidea mugatzen duen sarrera-oztopo bat (esate baterako, murrizketak auzo-erkidegoetako arauetan...), haren eskakizuna erabiltzaileei emandako zerbitzuaren kalitatearen onerako izan gabe.

## **J. Turismo-zerbitzuen sinboloak, bereizgarriak eta publizitatea**

**60.** 25. artikulua honakoa adierazten du:

”(...) egiaztatzen duten sinboloak ondo irakurtzeko eta ulertzeko moduan erakutsi beharko dira, hala publizitatean, iragarkietan eta dokumentu eta korrespondentzia guztietan, nola tarifetan eta erregelamenduz garatutako zerbitzu turistiko guztien fakturretan”.

Edozein jardueraren publizitatean eta dokumentazioan turismo-zerbitzuen sailkapena eta sinboloak agerrarazteko beharra beharrezkotzat jo ezin den baldintza bat da (izan ere, ez dago argi zertan laguntzen dion zerbitzuen hobekuntzari) eta, beraz, arauetatik ezabatu behar da.

## **K. Publizitatea**

**61.** Aurreproiektuak publizitatearen aipamenak ditu artikuluetan:

- 14. artikulua. f) erabiltzaile turistikoek indarrean dagoen araudiaren aurkako publizitate-jarduerak ez eragozteko daukaten eskubidea jasotzen den lekua,
- 93. artikulua; bertan adierazten da turismo-zerbitzuetan benetakoa ez den informazioa erabiltzea edo benetakoa ez den edo errakuntza eragin edo iruzurra dakarren publizitatea egitea huts larria dela.

**62.** Publizitatearen arloko aplikazio-araudia dagoeneko aipatu dugun Publizitateari buruzko Lege Orokorra da. 1. artikulua adierazten du publizitatea bertan adierazitakoaren bidez, LDLaren bidez eta publizitate-jarduera batzuk arautzen dituzten arau berezien bidez arautuko dela.

Arauk legez kontrako publizitatea arautzen du, eta LDLra igortzen du, hari aurre egiteko ekindako ekintzak zehazteko.

**63.** Publizitatea merkatuan lehiatzeko tresna eraginkorrenetako bat da. Hori dela eta, hari eginiko edozein debekuk edo mugaketak, zerbitzuen inguruan, behar bezala arrazoituta egon behar du, ondasun juridiko zehatza babesteari dagokionez –besteak beste, osasuna—. Mugaketa horiek behar bezala araututa daude erabiltzaileen interesak merkataritza-interesen gainetik babestea helburu duen publizitatearen araudian eta lehia desleialean<sup>43</sup>.

<sup>43</sup> Ikus 1907/1996 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Osasun-xedea duten produktu, jarduera edo zerbitzuen publizitateari eta sustapenari buruzkoa. 1996ko abuztuaren 6ko 189 zenbakiko BOE eta 3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Lehia Desleialari buruzkoa, 1991ko urtarrilaren 11ko 10 zenbakiko BOE.



**64.** Hori dela eta, egin nahi diren zaintzako ekintzak bakarrik izan beharko dira, batetik, egiaztatzea aplikatu beharreko araudiak onartzen ez dituen publizitate-ekitaldirik egiten ez dela eta, bestetik, bide hori indarrean dagoen araudian jasotzen ez diren murrizketak sartzeko ez erabiltzea.

## L. Prezioak

**65.** 5.1 d) artikulua ezartzen du Euskadiko Administrazioari dagokiola "Zaintzea ea betetzen diren ala ez zerbitzu turistikoaren publizitaterako eta prezioetarako ezarritako neurriak".

Lehia askeko sisteman enpresek eskaintako zerbitzuen prezioaren zehaztapenak librea izan behar du.

Zehaztapen librea mugatzearen ondorio zuzena da lehiatzeko, berritzeko, enpresek eskaintzak egiteko eta, ondorioz, erabiltzaileak hautatzeko gaitasuna mugatzea.

Prezioak ezartzeak, nolana ere, horien gorakada dakar; izan ere, efizientzia gutxieneko eskaintzaileek beren iraupena bermatzeko aukera izan behar dute hitzartutako prezioen mailarekin; hori dela eta, operadorerik eraginkorrenek beren onurak areagotzen dituzte, erabiltzaileengan prezioen beherakada eragin beharrean.

Aurreproiektuaren 26. artikulua turismo-zerbitzuen prezioak libreak direla jaso du, ezin zitekeen eta beste modu batera izan. Hori dela eta, Aurreproiektuaren 5.1 d) artikuluan jasotako aipamena prezioen publizitatearen inguruko zaintzara mugatzen dela ulertu behar da, erabiltzaileen eskubideen berme gisa.

**66.** Aurreproiektuaren 26.3 artikulua ezartzen du turismo-zerbitzuen prezioek eta fakturek, behintzat, gaztelaniaz eta euskaraz egon beharko dutela. Hori horrela, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legearen 40.2 artikulua ezartzen du bai "merkataritza-establezimendu handi" gisa sailkatutako establezimenduek, bai jendearentzako ondasunak eta zerbitzuak eskaini –kalifikazio hori gabe– eta "entitate handikoak" direnek kontsumitzaileentzako jakinarazpenak, fakturak, aurrekontuak eta antzeko dokumentuak elebidun idatzi behar dituztela, zerbitzuen hartzaileak berariaz bi hizkuntzetako bat erabiltzea hautatu ezean<sup>44</sup>. Zerbitzu horiek ematen dituztenen jardura ekonomikoari buruzko dokumentuak EAEko bi hizkuntza ofizialetan emateko beharrak beharrezkoa ez den karga dakar arauaren helburuak betetzeko.

<sup>44</sup> Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko 6/2003 Legearen 40.238.2 artikulua.



## IV. Ondorioak

**LEHENA:** Edozein enpresa-sektoreri aplikatzeko sortzen den arauak eta gizarte-eskari berriei erantzuteko ardura duenak berrikuntza, malgutasuna eta eskaintza-askatasuna errespetatu behar ditu sektorean.

**BIGARRENA:** Euskadiko Turismoari buruzko Lege Aurreproiektuak zerbitzuen eskaintzaile berrientzat sektorean sartzeko oztopo handiak eragiten dituen erregistro automatikoko eta ardurapeko adierazpeneko sistema aukeratzen du. Borondatezko erregistroko sistema batek, eskaintzaren baldintzen publizitaterako dauden beharrekin batera, erabiltzaileen eskubideak babesteko eta bermatzeko helburua modu ez hain murriztailean beteko luke.

**HIRUGARRENA:** Honako eskakizun hauek justifikatu gabeko oztopo dira eta proposamenetik ezabatu behar dira: apartamentu partikularrak turismo-etxebizitzan erregistroan inskribatzea; eskakizun bera logelen alokairuari dagokionez; ustiapen-unitatearen printzipioa eta baterako ustiapenari ezarritako mugak; salmenta ibiltariari jarritako mugak; turistiko, oporretako edo antzeko izendapenen erreserba; jardueraren erreserba eta agentziei ezarritako mugak.

**LAUGARRENA:** Lehia desleialari eta intrusismo profesionalari eginiko aipamen orokorrak eta jarduera klandestinoei eginiko edozein aipamen Aurreproiektuaren testutik kendu behar dira, ez baitira egokitzen aurrez ezarritako araudien parametroetara.

**BOSGARRENA:** Arau-hausteen tipifikazioa eta Aurreproiektuak horien aurrean aurreikusten dituen ondorioak gehiegizkoak dira. Hori dela eta, merkatuan sartzeko disuasio-neurriak izan daitezke, batez ere operadore txikien kasuan.

**SEIGARRENA:** Arauak turismo-jardueran muga handiak ekar ditzaketen gaiei buruzko araudi-garapenen inguruan egiten duen aipamena gehiegizkoa da. Erregelamenduz jaso nahi den edozein sarrera-oztopok haren beharra behar bezala justifikatu behar du, Legean ezarritako helburu zehatza betetzeko; halaber, helburu bera betetzeko hain murriztailea ez den neurririk ez dagoela eta hura diskriminatzailea ez dela justifikatu beharko da.